



22. KORRIKAK Amurrio eta Donostia lotuko ditu, euskara hitzetik ekintzara eramateko

AEK-k antolatuta, Euskal Herri osoa zeharkatuko du 22. KORRIKAK 2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era bitartean. «HITZEKIN» da hautatutako leloa, AEKren esanetan, «euskara HITZetik EKINTzetara eramateko unea delako». Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak omenduko ditu KORRIKAK edizio honetan, «beren ibilbidean adierazi duten konpromisoagatik eta ekinagatik».

KORRIKAREN 22. edizioa aurkeztu dute AEKren arduradunek gaur, azaroaren 17an, Donostiako San Telmo museoan egindako agerraldian. **2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era bitartean**, Euskal Herri osoan barrena ibiliko da euskararen aldeko lasterketa erraldoia, **Amurrio abiapuntu** eta **Donostia helmuga** hartuta. **11 egun** izango dira, eta **2.500 kilometro inguru** burutu ostean, Gipuzkoako hiriburuan bertan jakingo da KORRIKAREN sekreturik handienetakoa: lekuko barruan milaka kilometro egin dituen mezua.

Alizia Iribarren AEKren koordinatzaile nagusiaren esanetan, «egun, oraindik, KORRIKAK jaiotzetik izan dituen bi helburuek oso bizirik diraute: euskararen aldeko kontzientzia suspertzea eta euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea». Lehendabizikoaren ganean, Iribarrenek hau gehitu du: «AEKn jakitun gara pandemiak errotik ezabatu duela euskara plazatik zein askoren bizitzatik; eta, beraz, oso garrantzitsua iruditzen zaigu KORRIKAK dakarren euskararen aldeko uholdea berreskuratzea».

Bestetik, diru-bilketari dagokionez, eta aurrerapausoak eman diren arren, «Administrazioari dagokionez, euskaltegiei bideratutako baliabideak oraindik ez dira nahikoak», dio AEKren koordinatzaile nagusiak, «eta ezinbestekoa da Euskal Herri osoak nahitaezkoa duen helduen euskalduntzea bizkortzea eta inbertsioak areagotzea». Hori dela eta, 22. KORRIKAK jasoko duen dirua Euskal Herri osoko bere euskaltegiei laguntzeko baliatuko du AEK-k.

HITZEKIN

KORRIKAREN beraren mamiari erreparatuta, **Aitziber Balantzategi AEKren Artezkaritza Kontseiluaren lehendakariak eta KORRIKA**

korrika.eus



ARABA

Arana kalea 30, behea
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA

Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA

Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA

Marengo karrika 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparraldea@korrika.eus

NAFARROA

Errekoleten kalea 16, behea
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus



Amurriotik Donostia

2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

batzordeko kideak eman ditu azalpenak. «**HITZEKIN da edizio honetako leloa**. Hizkuntza bat hitzekin osatzen da, baina ekimenek eraikitzen dute hizkuntza baten komunitatea. Ekiteko ordua da: euskara hitzetik ekintzara eramateko unea». Hala dio 22. KORRIKAREN mezuak. Aldekotasunik konpromisora jo behar dela dio Balantzategik, «eta konpromisotik erakunde orok urrats sendoagoak egin ditzan eragitera, jendartearen nahiei eta beharrei erantzuteko».

Horren adibide argia izan dira **Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak, KORRIKAREN edizio honetako omenduak**. Hala erabaki dute AEK-ko kideek, Balantzategiren esanetan, «beren 34 urteko ibilbidean adierazi duten konpromisoagatik eta ekinagatik; eta orainaldiari eta etorkizunari begira dauden eragileak direlako». Euskararen transmisiorako izan duten rolean ere jarri du azpimarra Balantzategik, «azken batean, haiek transmisioa goitik behera (guraso-ume) eta behetik gora (ume-guraso) landu dute, eta zuzeneko eragina izan dute ume eta guraso askok euskararen hautua egin dezaten. Haiek, haien hitzekin, euskarari ekin zioten, eta eutsi egin diote».

korrika.eus



ARABA

Arana kalea 30, behea
01002 GASTEIZ
946 464 000
araba@korrika.eus

BIZKAIA

Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO
946 464 000
bizkaia@korrika.eus

GIPUZKOA

Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA
946 464 000
gipuzkoa@korrika.eus

IPARRALDEA

Marengo karrika 22
64100 BAIONA
05 59 25 76 09
iparraldea@korrika.eus

NAFARROA

Errekoleten kalea 16, behea
31001 IRUÑEA
946 464 000
nafarroa@korrika.eus